



OROIMENA BIZIGUNE
HABITAR LA MEMORIA

GATAZKA, INDARKERIA, BIKTIMAK, SUFRIMENDUA,
BELDURRA, ISILTASUNA, BAKEA, BIZIKIDETZA

PRENTSA-TXOSTENA

Oroimena Bizigune - Habitar la Memoria dokumental-proiektuan bederatzi gaztek Errenteriako indarkeriazko gatazkaren inguruko testigantzak eta oroimena bildu dituzte.

Irusoinek, Úbiqak eta Moviltik Elkarte Kulturalak Oroimena bizigune partaidetzazko proiektua aurkeztuko dute, eta dokumentala zein webgunea egin dira bertan.

- **Asteazkena, Abenduak 16. 19,00etan.**
Donostiako Antzoki Zaharrean.
- **Osteguna, Abenduak 17. 12:00etan.**
Bilboko Azkuna Zentroko Golem Zinema Aretoetan.

Proiektuan parte hartu duten gazteak, dokumentalaren zuzendaria eta ekoiztetxeetako ordezkariak han egongo dira, bertaratzen diren ikus-entzuleen galderei erantzuteko.

Proiektuaren deskribapena

Oroimena Bizigune - Habitar la Memoria **sentsibilizaziorako, gizarte-komunikaziorako eta oroimena eraikitzeako partaidetzazko dokumental-proiektu bat da**, formatu eta plataforma anitzetan garatua (webgunea eta dokumentala). Proiektuak euskal gizarteak gatazkaren inguruan dituen iritziak eta testigantzak sorkuntza narratibo eta ikus-entzunezko kontaketeekin osaturiko prozesu parte-hartzaile baten bidez aurkeztea du helburu.

2015eko otsailean eta martxoan gauzatutako lantegietan, **Errenteriako eta Oarsoaldeko bederatzi gaztek** lan-prozesu batean **parte hartu dute**: bertan, eztabaida eta hausnarketak eginez eta mugikorrek grabatutako elkarrizketen bidez Errenteriaren iragana ezagutu dute, herritarrek indarkeriaz eta udalerririk jasandako giza-eskubideen urratzeek eskainitako iritzi eta lekukotzei esker.

Oroimena bizigune - Habitar la Memoria **prozesu berritzaile** batean oinarritutako proiektua da, partaidetzaren, hausnarketaren eta sorkuntzaren bidez herritarren kontaketa eratzea proposatzen du, **Euskadiko herritarrek iragan hurbilaren oroimena eraiki eta bizigune bihurtu dezaten.**

Teknologiaren erabileran, kontaketa digital berrietan eta herritarren partaidetzan, lankidetzan eta

konpromisoan oinarritutako esperientzia pilotua da hau. Gizarte berrikuntzaren praktikan oinarritutako ereduak da, Errenterian hasi eta Euskadiko gainerako udalerrietara zabaltzeko asmoz sortua.

Protagonistak

Lantegietan **parte hartu duten gazteak**, helduena bezain “kutsatuta” ez dagoen belaunaldikoak, **izan dira herritarren elkarrizketetarako galderak zehaztu eta adostu dituztenak**. Haiek dira, Errenteriako herritarrekin batera, proiektu honen protagonista.

Proiektuak herritarren profil hori aktibatzen du, gazteek aldaketa-proiektu bat zuzentzeko, iraganaren azterketa kritikoa egiteko eta bizikidetzazko etorkizun bat eratzeke dituzten trebetasunak lantzeko. Haiek egiten dituzte protagonista, haien izaera kritikoa aktibatuz, gizartean duten paperaz eta bizileku dituzten lurralde eta identitateetan duten zereginaz hausnar dezaten.

Gazteek isiltasuna eta aurreko belaunaldien susmo eta errezeloak hautsiko dituzte, hitza hartu eta besteei entzuteko. Modu kritikoa begiratuko diote iraganari, beldurrik gabe eta **bizikidetzazko etorkizun bat eraikitzeke orainaldian lan egiteke gogoz**.

Helburua

Proiektuaren helburu nagusia **kontaketa kolektiboak eta gatazkaren memoria eraikitzea eta bakegintzaren kultura nahiz Errenteriako eta Euskadiko gainerako udalerrietako bizikidetzaren oinarriak zabaldu, sendotu eta sakontzeko ekarpenak egitea da**, non edozein jatorriko indarkeriaren gaitzespena eta giza eskubideen erresetua euskal gizarte berriaren ezaugarri bereizgarri nagusietako bat izango den.

Iraganaren azterketa kritikoa eginez, prozesu parte-hartzaile bat bultzatu, XXI. mendeko euskal gizarte berriari buruzko eztabaida herritarren artean sustatu eta Errenteriaren eta Euskadiren iragana, oraina eta etorkizuna bilduko dituen kontaketa partekatu bat eraiki nahi da.

Emaizak

Oroimena Bizigune - Habitar la Memoria, Euskadiko indarkeriazko gatazkaren oroimena eraikitzen duen formatu anitzeko kontakizun kolektibo bat da

Webgunea

www.oroimenabizigune.org helbideetan biltzen dira, prozesuan zehar Errenteriako herritarrei egindako 100 elkarrizketetan bildutako testigantzak.

Testigantzak bi modutan ikusi eta iragazi daitezke webgunean:

- Mosaikoa
- Geokokatutako testigantzen mapa

Dokumentala

Prozesu osoan zehar hiru kamerekin grabatu dira jarduerak, elkarrizketak, hausnarketa pertsonalak parte-hartzaileen iritziak jaso eta 64 minutuko dokumental bat osatzeko. Dokumentalak grabazio horiek eta **parte-hartzaileek mugikorrek grabatutako herritarren elkarrizketak** biltzen ditu.

Dokumentala ez da prozesuaren garapen zehatza eta sekuentziala, aitzitik, esperientzian gertatutakoaren arabera, interpretazio narratibo bat gauzatu da eta gazte parte-hartzaile eta protagonisten eta dokumentalaren zuzendariaren ikuspuntutik agertzen da prozesua.

Dokumental honen helburua proiektua eta bere **izaera parte-hartzailea eta eraikitzailea** testuinguruan ahalik eta egokien kokatzea da; elkartu, hausnartu nahiz **eztabaida-guneak sortzeko** hauspoa eskaintzea; bizikidetzaz erraztu eta ahalbidetuko duten mezuak eraikitzea.

Dokumentalaren sinopsia

Oarsoaldeko bederatzi gazte lantegi batzuetan parte hartu dute: haietan, ekintza ezberdinen bidez Errenteriako indarkeriazko iragana (ber)ezagutu eta iragan horretan sakondu dute, indarkeriaren, biktimen, sufrimenduaren, beldurraren eta isiltasunaren jatorrien gainean eta bakea eta bizikidetzaz hobetzeko eztabaida-guneak sortzeko moduaren inguruan hausnartuz.

Oroimena Bizigune - Habitar la Memoria egiazko protagonistak dituen partaidetzako dokumentala da, lantegietan parte hartu duten gazteen hausnarketa prozesua eta Errenteriako herritarrei egindako elkarrizketak agertzen dituen, haien iritzia ezagutu eta jasotako testigantzen bidez udalerriko indarkeriazko iraganaren ikus-entzunezko oroimena eratzea helburu duena...

- Gidoia eta zuzendaritza: Alaitz Arenzana
- Argazki-zuzendaria: Gaizka Bourgeaud
- Musika: Maite Arroitauregi (Mursego)
- Protagonistak: Arrate Fernández, Julen Mindegia, Nora Vicente, Amaiur Pérez, Eneritz Olaizola, Irati Senperena, Edgar Chamorro, Mikel Benito, Itziar Ostolaza
- Ekoiztetxeak: Irusoin, Ubiqa, Moviltik
- Generoa: Partaidetzako dokumentala
- Iraupena: 64 minutu

Harremanetarako

aitor@kulturatelier.eus

jokin@kulturatelier.eus

943.218.899

679.202.899

“Oroimena bizigune - Habitar la memoria” Irusoin, Ubiqa eta Moviltik Kultur Elkarteak ekoiztutako proiektua da, Errenteriako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritzako Bakea eta Bizikidetzako Idazkaritza Nagusia eta Kultura Saila, eta Donostia/San Sebastian Europako Kultur Hiriburua 2016-ren babesarekin burutua.

 **úbiqua**  **IRUSOIN**  **MOVILTIK**